

# Cristóbal Balenciaga

## Teknika, Materia eta Forma

Ikusmen urritasuna

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

# B



# 1. Aretoa



## Cristóbal Balenciaga, 1895-1972

Cristóbal Balenciaga funtsezkoa izan da XX. mendeko goi-mailako jantzigintzan. Haren ekarpen kontzeptual, tekniko eta formalek aztarna ezabaezina utzi dute modaren historian.

Bere garaian «ikusezin», «enigmatiko» eta «gortina atzeko gizon» gisa hartu zuten, eta haren alderdi pertsonala bigarren plano diskretu batean geratu izan da beti.

Jostunaren biografia zabala dokumentatzen duten erretratu urriak, haren hastapenetako erreferentziak, objektu pertsonalak eta lanekoak, eta haren sormenezko mugarriak garai hartan hauteman zituzten moduan aurkeztuta biltzen baditugu, agerian jar dezakegu hala Cristóbal —pertsona— nola Balenciaga —mitoa—.

1895

Cristóbal Balenciaga Eizaguirre urtarrilaren 21ean jaio zen, Getarian, Zacayo kaleko 10. zenbakian, gaur egun Aldamar kalea. Jose eta Martinaren semea, hiru anai-arreben artean gazteena zen.

1917

Bere lehen etxea ireki zuen Donostiako Bergara kaleko 2. zenbakian: «C. Balenciaga». Ondoren, sei urtean Lizaso ahizpekin kidetuta egon zen, eta «Balenciaga y Cía» eratu zuten.

1906

Lehen soinekoa egin zuen Casa Torresko Markesarentzat. Markesak Getariako Bista Ona etxean igarotzen zituen udak, eta harentzat jostun-lanetan aritzen zen Balenciagaren ama. Markesa Cristóbalen mentore eta bezero bihurtu zen.

1924

Sozietateak hainbat aldaketa izan ondoren, Donostiako Askatasunaren hiribideko 2. zenbakian ireki zuen lantegia, «Cristóbal Balenciaga» izenez. María Cristina erregina eta Isabel Alfonsa infanta bere bezero egin ziren. Eta haien ondotik etorri ziren errege-familiako eta gorteko beste zenbait dama.

1907

Donostiara joan, eta jostintzan trebatzen hasi zen garai hartako jostundegi ospetsuenetako batzuetan, hala nola Casa Gómez, New England eta Grandes Almacenes Au Louvre-Parisen.

1927

Bigarren etxea sortu zuen Donostiako Okendo kaleko 10. zenbakian, «Martina Robes et Manteaux», eta urte bereko urrian «EISA Costura» bihurtu zuen, izen biak amaren omenez.

1933

«EISA Costura»k «EISA B. E. Costura»ri bide eman zion, eta Askatasunaren hiribideko 2. zenbakiko lehen solairura aldatu zen. «Cristóbal Balenciaga» enpresa eraikin bereko bigarren solairuan zegoen. Aldi berean, Madrilen sukurtsala ireki zuen, Caballero de Gracia kaleko 42. zenbakian, eta, bi urte geroago, Bartzelonan ere ezarri zen, Santa Teresa kaleko 10. zenbakian.

1937

Madril eta Bartzelonako etxeetan jarduna eten zuen aldi baterako. Uztailean Chambre Syndicale de la Haute Couture elkartean inskribatu zuen, d'Attainville eta Bizcarrondo bazkideekin batera, «BALENCIAGA» konpainia, egoitza Parisko George V.a etorbideko 10. zenbakian zuena.

1939

Balenciagak eragin historizista sakona zuen bilduma bat aurkeztu zuen, XVII. mendeko eta Frantziako II. Inperioko modaren kutsu argia zuena. Haren «infanta» soinekoen arrakasta erabatekoa izan zen. Bezeroak ugaritu zitzaizkionez, Mainbocher jostunaren ondoko aretoak eskuratu zituen.

1941

Madriilen, Gran Vía kaleko 9. zenbakira aldatu zuen negozioa. Urtebete geroago, Balenciagak, Juan Martin anaiarekin batera, «EISA S.A.» sozietatea sortu zuen, eta hartara bildu ziren hiru lantegiak, Donostiakoa, Madrilgoa eta Bartzelonakoa.

1946

Balenciaga etxearen lehen perfumea sortu zen. «Le Dix» izena zuen, eta haren ondotik etorri ziren «La Fuite des Heures» (1948an) eta «Quadrille» (1955ean).

1947

Otsailean, «upel» deritzon lerroa aurkeztu zuen Balenciagak, irudi estuak ezaugarri zituen garai hartako estetika nagusitik urrun eta arintasunaren aldeko apustua eginez diseinuan. Aldi berean, «bar» modeloa aurkeztu zuen Christian Diorrek.

1948

Kale mailako lehen boutiquea inauguratu zen. Christos Bellosek diseinatu zuen, estilo trinko eta dotorean eta espainiar ukituaz. Abenduan, Wladzio d'Attainville hil zen, Madriilen.

1951

Balenciagak otsailean «erdi estua» eta «marinière» trajeak aurkeztu zituen eta «midi» abuztuan. Modelo horiek hogeiko hamarkadako siluetak gogorarazten dituzte: gerri lausoko jantziak, erreferentzia sorbalden lerroan eta soinekoen barrenetan zutenak.

1952

Janine Janet artistari boutiquearen erakuslehoiak diseinatzea eskatu zion. Hauetarako, eskulturak sortzen zituen, zeinetan produktuak integratuta geratzen ziren, edo ia ikusezinak ziren.

1955

Balenciagak «tunika» aurkeztu zuen, «midi» lerroaren bilakaeraren emaitza: lerro zuzen eta aratzekiko bi piezako soineko bat, gorputza inguratzen duena estutu gabe. Hurrengo urtetik aurrera, hark eta Givenchyk goi-mailako joskintzaren egutegi ofizialetik kanpo aurkeztu zituzten bildumak prentsaren aurrean.

1957

«Zaku» soinekoa txertatu zuen, «upel» lerroarekin hasitako bilakaera formalean beste urrats bat. Bizkarraren kurbatura nabarmenagatik da ezaguna, eta Balenciagaren siluetarik aipatuenetakoa eta polemikoenetakoa da. Bilduma berean, «baby doll» soinekoa aurkeztu zuen. Haren ezaugarri nagusia gerririk gabeko silueta trapezoidalaren sinpletasuna da, gerria ezabatzen duena. Balenciagaren diseinuan gorputzaren eta soinekoaren artean pixkanaka gertatutako haustura kontzeptualaren beste adibide bat da.

1958

«Indioilar tankerako» soinekoak aurkeztu zituen, behealde asimetrikoak. Aldi berean, Abraham oihal-hornitzailearekiko lankidetzaren estuari esker, gazar ehuna sortu zen: ezaugarri eskultorikoak dituen oihala, Balenciagaren sorkuntza kontzeptualen etarako aproposa. Frantziako Gobernuak Chevalier de la Légion d'Honneur titulua eman zion. Eta nazioarteko prentsak «Maisua» eta «Goi-mailako joskintzaren erregea» izendatu zuen.

1960

Fabiola de Mora y Aragónen ezkontza-soinekoa diseinatu zuen, Casa Torresko Markesaren iloba, eta Belgikako erreginagaia. Bildumak aurkeztu ostean, Balenciaga sarri itzultzen zen atsedean hartzera Igeldoko bere etxera, Getaria eta Donostia artean.

1967

Balenciagak forma gero eta aratz eta abstraktuagoak landu zituen, aurretiko bere kontzeptuak muturrera eramanez eta tankera eskultorikoko siluetak sortuz, gorputzetik erabat bereziak. Prentsak eta publikoak goretsi egin zuten bilduma hura.

1968

Otsailean bere azken bilduma aurkeztu, erretiroa hartuko zuela iragarri, eta bizitzako lehen elkarrizketa eman zuen, Paris Match aldizkariarentzat. Urte horretan, Air France konpainiaren uniformeetarako egin zituen diseinuak aurkeztu ziren.

1970

Donostiako etxetik, modarekin loturiko beste enpresa-proiektu batzuetan parte hartu zuen. Züricheko (Suitza) Bellerive Museoarekin lankidetzan aritu zen berari buruzko atzera begirako lehen erakusketan —hurrengo urtean aurkeztu zen—.

1972

Cristóbal Balenciaga 77 urte zituela hil zen, Valentzian, martxoaren 24an, eta sorterrian ehortzi zuten, Getariako hilerri txikian.

1973

New Yorkeko Metropolitan Museoak goi-mailako joskintzako maisuaren omenezko erakusketa bat antolatu zuen. Haren atzetik, hainbat omenaldi egin zizkioten mundu osoko erakunde askok.

1999


Cristóbal Balenciaga  
Fundazioa sortu  
zen, jostunaren obra  
kontserbatzeko eta zabaltzeko  
xedeaz. Hubert de Givenchy  
izan zuen buru lehen  
patronatuak, eta modako eta  
kulturako pertsonaia ezagunak  
izan ziren patronatuko  
gainerako kideak ere.

2011

Cristóbal Balenciaga  
Museoak atek ireki zituen,  
Kultura Ministerioak, Eusko  
Jaurlaritzak, Gipuzkoako  
Foru Aldundiak eta Getariako  
Udalak sustatuta.



# 2. Aretoa





## Etxea

Goi-joskintzako saloian, etxearen sorkuntza-zikloaren eta merkataritza- eta ekoizpen-zikloaren arteko inflexio-puntua markatzen duen errituala antzezten da, denboraldiz denboraldi: bildumaren aurkezpena.

Gonbidapena behar da aurkezpena ikusteko. Bertan elkartzen dira bezero partikularra —kosmopolita eta eragin handikoa— eta bezero profesionala —etxeen benetako euskarri ekonomikoa—, proposamen berriak aukeratzeko eta, prentsa espezializatuarekin batera, publiko zabalari haien berri emateko.

Balenciaga etxean, dena jostunaren sorkuntzen ezaugarriak bakarrik nabarmentzeko moduan dago pentsatuta dena: hasi aretoaren dekoraziotik —bikaina eta neutroa—, eta modeloetara —emakume dotoreak, ez bereziki ederrak—. Aurkezpen ofizialaren ondoren, bi hilabetez, desfile partikularrak dira eguneroko jardueraren ardatz. Saltzaileek —dagokien zereginari egokituriko maneren eta edukazioaren jabe diren emakumeak— lagunduko diete esleituta dauzkaten bezeroei enkarguak eta probak kudeatzen, eta salmenta-prozesu osoa gainbegiratuko dute.

Goi-joskintza eksklusibotasunaren, estatusaren eta bizimodu jakin baten ikur da. Baina, beste ezeren aurretik, negozio bat da. Balenciagaren kasuan, abangoardia, bikaintasuna eta dotorezia uztartzen dituen izen bat saltzen da. Eta halaxe kotizatzen, desiratzen eta ordaintzen da.

«Balenciaga da garestiena, eta haren bezeria, aberatsena».  
Florette Chelot, Balenciaga etxeko saltzailea, Paris

## 1. Beira-arasa

217 / Abuztua 1960

Gaueko soinekoa, malba-  
koloreko satinean, tul gaineko  
lore-brodatuarekin

CBM 2004.08

169 / Otsaila 1960

Gaueko soinekoa, zeta  
arrosa argian, landare-  
brodatu beltzekin

CBM 2011.34

114 / Otsaila 1960

Gaueko soinekoa, satin horian

CBM 2006.09

63 / Otsaila 1962

Gaueko konjunttoa boli-  
koloreko shantung ehunean,  
zetazko hariz egindako lore-  
brodatuarekin

CBM 2000.130ab

1958

Gaueko soinekoa Tourseko  
gros ehun arrosa argian, tul  
gainean lentejuelaz egindako  
lore-brodatuarekin eta  
parpailazko xingolekin

CBM 19.2023

## 2. Beira-arasa

62 / Otsaila 1958

Satin fuksiazko gaueko  
soinekoa, lore-brodatu  
zuriarekin

CBM 2000.125

141 / Abuztua 1959

Sablez egindako belus  
arrosazko deshabilitàa, lore-  
estanpatu zuriarekin

CBM 2000.20

104 / Abuztua 1962

Koktel-konjuntua satin  
beltzean eta tafeta arrosan,  
txenilaz brodatutako  
tulez estalia

CBM 2000.25ab

9 / Otsaila 1958

Zeta beltzezko satinez  
egindako gaueko soinekoa,  
dentela beltzez eta fuksia  
koloreko parpailadun  
forruaz apaindua

CBM 2012.39

106 / Abuztua 1959

Gaueko soinekoa Napolesko  
gros ehun zurian, urrez  
brotxatua eta kaxmirrezko  
motiboekin apaindutako tonu  
gorriko ikat estanpazioarekin

CBM 2000.34

126 / Otsaila 1961

Gaueko soinekoa, koral-  
koloreko zetazko sargan

CBM 2011.18

### 3. Beira-arasa

191 / Abuztua 1959

Koktel-konjunttoa rayonezko gazan, tonu marroi eta grisean estanpatua

CBM 2000.78ab

42 / Abuztua 1962

Koktel-soinekoa organtza zurian, lore-motiboak dituen brodatu ingelesarekin

CBM 2000.54ab

77 / Abuztua 1958

Koktel-soinekoa, parpaila gris brodatuz egina, tonu bereko organtzadun xingolekin

CBM 2000.73

147 / Otsaila 1962

Parpaila beltzez egindako koktel-soinekoa, eskotean bolantea duena, satinezko begizta arrosa batekin lotuta

CBM 2012.35

136 / Abuztua 1962

Gaueko konjunttoa satin arrosa eta beltzean, lentejuelaz, kristalez eta bihiz brodatutako shantung ehunezko

gorputzarekin

CBM 2000.72ac

#### 4. Beira-arasa

197 / Otsaila 1959

Koktel-soinekoa zeta  
urdinezko sargan, tanto  
beltzezko estanpatuarekin.

Satin beltzezko burukoa

CBM 2019.14

CBM 14.2016

1959

Koktel-konjuntoa, organtza  
urdinez egina

CBM 29.2012

117 / Otsaila 1960

Tonu urdinetan estanpatutako  
gaza grisez egindako  
koktel-soinekoa

CBM 02.2013ab

1960

Gaueko beroki zabala, belusa  
urdinez egina

CBM 2000.01

185 / Abuztua 1958

Koktel-soinekoa, errege-uridin  
koloreko damaskoz egina

CBM 2000.88

130 / Abuztua 1960

Koktel-soinekoa gaza  
beltzean, parpailazko xingolaz,  
zetazko lokarriz, lentejuelaz  
eta atxabitxiz brodatua

CBM 2000.65

## 5. Beira-arasa

121 / Abuztua 1962

Artilezko sarga pilatuzko  
berokia, esmeralda  
berde kolorekoa  
CBM 2003.22

108 / Abuztua 1962

Tunika koktel-soinekoa,  
rayon turkesa urdineko  
sarga tolesdunarekin  
egina, satin beltzezko  
begiztarekin. Melusine beltzez  
egindako kapela, larruzko  
begizta batekin  
CBM 2000.203  
CBM 2007.08

132 / Otsaila 1959

Koktel-konjuntoa, zetaz  
zurizko tafetaz egina, tonu  
turkesa eta horizko lore-  
estanzazioarekin, soinekoz eta  
kapelina izurtuz osatua  
CBM 2000.83ac

134 / Otsaila 1958

Koktel-beroki zabala, organtza  
urdinez egina  
CBM 2014.67

1961

Zeta berde turkesazko krepez  
egindako soinekoa  
CBM 1998.65

124 / Abuztua 1959

Eguneko konjuntoa, mohair  
bouclé beltzeko artilez egina.  
Bisoizko kapela  
CBM 2005.20  
CBM 2012.66

## 6. Beira-arasa

61 / Abuztua 1959

Eguneko soinekoa, artile beltzeko krepez egina. U formako eskotea atzean, eta ohol exentua

CBM 2014.60

11 / Abuztua 1958

Koktel-berokia, errege-uridin koloreko Napolesko grosean

CBM 2000.50bc

CBM 2007.08

73 / Abuztua 1959

Koktel-soinekoa, otoman urdin errealekoa, lore-estanziaziduna, ikat beltzean.

Bourreleta belus beltzean, begizta batekin

CBM 2014.63

CBM1999.08

121 / Abuztua 1960

Koktel-soinekoa txenila beltz eta urdinezko otomanean

CBM 2014.163

42 / Abuztua 1958

Koktel-soinekoa, urdin erreal Napolesko grozez egina, bizkarrean eskote karratua eta tulipa-gona dituen

CBM 2000.50a

140 / Abuztua 1962


Emakume-janzkia artilezko sargan, atxabitxizko botoiekin. Feltro beltzeko burukoa

CBM 2018.1141ab

CBM 208.1132



# 3. Aretoa





## Teknika

Balenciaga maisu handia da bere lanbidean. Gai da bere eskuez asmatzeko, mozteko, muntatzeko eta josteko. Horrek guztiak egiten du berezi haren sorkuntza-prozesua. Prozesu hori, oro har, oihalari gorputzean forma emanez —moulage— hasten da, edo ideien zirriborro batetik, zeinetik ateratzen baita kotoian egindako patroia bat edo toilea.

Bizitza osoko azterketa eta esperimentazio pertsonalean zehar metatutako ezagutza teknikoari esker, gai da gorputza espiralean inguratzen duten bilgarriak sortzeko, oihala zeharka ebakita, jostura bakarreko patroiak —minimalismo formalaren eta konstruktiboaren epitomea—, zorrotasun matematikoko geometrietan oinarrituriko bolumenak edo anatomiaren eta mugimenduaren ezagutza sakona iradokitzen duten mahukak.

## Tailerrak

Jantziak tailerretan egiten dira. Balenciagak pentsaturiko modelo originalaren toilea da abiapuntua: bezeroren neurrira egokiturik erreproduzitzen da modeloa, kotoian lehenik, eta, egin beharreko probak eta doitzeak egindakoan, azken oihalean.

Tailerrak espezializatuta daude, lantzen duten materiaren arabera: sastreria —oihal sendoz egindako jantziak, egunerako—; fantasia edo modisteria —oihal arinez edo aberastuez egindako jantziak, koktelerako, gauerako eta zeremonietarakoak—; eta kapelagintza —artisau eran egindako kapelak eta burukoak—.

Atelierreko buruak zuzentzen du tailerra; haren egitekoa da oihalak moztea eta ofizialen ardurapeko lantaldeetan lana antolatzea. Ofizialak arduratzen dira, jostun eta laguntzaileekin batera, jantziak muntatzeaz, jostez eta lisatzeaz, goi-joskintzaren berezko teknika eta akabera zainduak aplikatuz.

Langile horiek —emakumeak, gehienak— barne-trebakuntza jasotzen dute etxearen egiteko moduei buruz. Haien lantokia eta zeregina, beren josturak bezalaxe, ikusezinak dira. Haien izenak eta aurpegiak ez dira ezagunak. «Les petites mains» dira, josten duten eskuak, Balenciagaren ezinbesteko lankideak.

## 1. Beira-arasa

Instalazio hau behealde  
asimetrikoa eta lepoko  
begizta bereizgarri dituen  
gaueko soineko ikoniko honen  
sorkuntza prozesu osoari  
buruzkoa da, kotoizko patroia  
edo toiletik hasi eta obra  
amaitura eta Cecil Beatonek  
1967an Harper's Bazaar  
aldizkarirako fotografiatura.  
CBM 2023.124

Eszenografia  
Ikerne Giménez

## 2. Beira-arasa

1953  
Konjunto erdidoitua goroldio  
koloreko artilezko puntuan  
CBM 2001.09AB

1953  
Emakume-janzki erdidoitua  
eta kanezu makurra  
bizkarrean, liho horian  
CBM 2011.43ab

## 3. Beira-arasa

1961  
Jostura bakarreko beroki  
inguratzailea, artile  
beltzezko sargan  
CBM 17.2023

1966  
Jostura bakarreko soineko  
inguratzailea, zeta  
beltzezko krepean  
CBM 2012.49

1963  
Gorputz inguratzaileko  
konjuntoa, artile urdin  
argizko krepean  
CBM 1998.42ab

## 4. Beira-arasa

1962

«Hip flip» motako emakume-  
janzkia, artile beltzezko  
krepean, lurex korapilatu  
beltzezko botoiekin  
CBM 1998.25ab

## 5. Beira-arasa

1953

Trapezio-formako  
berokia, moare beltzean,  
begizta-lepoarekin  
CBM 2023.226

1950

Gaueko konjunttoa, boli-  
koloreko satinean, parpaila  
beltzez estalia  
CBM 2023.225

## 6. Beira-arasa

1967

Fourreau gaueko soinekoa,  
eskote izurdunarekin, zeta  
laranjako krepez egina  
CBM 2014.78

1963

Gaueko soineko inguratzailea  
zeta zurian, lore-estanzazio  
gorriarekin  
CBM 2003.21a

## 7. Beira-arasa

1959

Gaueko soineko inguratzailea,  
zeharka ebakia eta sorbaldatik  
hasitako estolarekin, zeta  
beltzeko belusean

CBM 2009.02

1962

Koktel-soineko inguratzailea,  
zeharka ebakia zeta beltzeko  
krepean, hodi-erako  
estolarekin

CBM 2019.19

1960

Izur inguratzailedun gaueko  
soinekoa, boli koloreko  
eta zinta marroiekin  
estanpatutako gazaz egina

CBM 2016.105

## Instalazio A


Instalazio honetako irudiek  
Balenciagaren langileen  
eszenak, aurpegiak  
eta eguneroko irudiak  
dokumentatzen dituzte.  
Emakume saiatu eta  
nekaezinak ziren, eta  
«errezelaren atzean» egoten  
ziren beti, baina aitortza egin  
eta merezitako tokia eman  
nahi zaie.

Artista

Susana Blasco



# 4. Aretoa





## Materia

«Ehunekin ahal duguna egiten dugu guk.  
Balenciagak, berriz, nahi duena egiten du.» Christian Dior

Oihal-hornitzaileen eta moda-sortzaileen arteko konplizitateaz ohartzea ezinbestekoa da ulertzeko Parisen ziharduten goi-joskintzako etxeek denboraldiz denboraldi beren bezeroak limurtzeko zer-nolako aberastasuna lortzen zuten kalitate goreneko testuretan, koloretan, estanpatutan, brodatutan eta abarretan.

Hornitzaileak jantzigintzaren balio kateko maila batean baino gehiagotan zeuden. Batzuk ordezkari komertzialak edo komisiiodunak ziren —ehundegi-sorta hautatuekin zihardutenak—; beste batzuk, beren oinarriko oihalak sortzeko hirugarrenen hariez hornitzen ziren estanpatu edo brodatuen sortzaileak; eta sorkuntza-prozesua eta prozesu teknikoa eskala industrialean hasi eta buka egiten zuten fabrikatzaileak ere bazeuden.

Balenciagak ezagutza sakona zuen oihalei buruz, seguru asko jostun gisa izandako prestakuntzari eta esperientziari esker. Hori zen haren sorkuntza-prozesuaren oinarria. Lankide izan zituen Frantziako, Suitzako, Italiako eta Ingalaterrako hornitzaileak, eta merkataritza-harreman iraunkorrak sortu zituen haiekin. Baita adiskidetasun harremanak ere, kasu batzuetan, hala nola Abraham suitzar etxeko Gustav Zumstegekin.

## 1. Beira-arasa

Instalazio honetan, Coudurier Fructus eta Descherren lame zerrendez egindako «Voluptueuse» motako gaueko jakaren stratigrafia bat ikusten da, ehunaren egituratik hasi eta estanpaziorainokoa. Balenciagak Parisen aurkeztutako lehen bildumakoa da joka, 1937ko abuztuko.

CBM 2023.124

Eszenografia

Ikerne Giménez

## 2. Beira-arasa

Euskarri hauek —zeinetan agertzen baitira bilduma bateko modelo guztiak, beren zenbakiaz identifikatuz—, aditzera ematen dituzte, halaber, modelo bakoitzari esleitutako oihala eta haren hornitzaileak, hura egiteko ardua izan zuen atelierreko buruaren izena eta hura aurkeztuko zuen manikiarena. Garai hartan, lanaren antolaketa errazteko funtzioa zuten, eta, gaur egun, berriz, bisualki dokumentatzen dute etxeak bilduma bakoitzean zer-nolako lan zabala eta konplexua egiten zuen.

1957ko abuztuko bilduma

1966ko otsaileko bilduma

1968ko otsaileko bilduma

Archives Balenciaga, Paris

## 3. Beira-arasa

Circa 1964

Konjuntoa esmeralda-berde  
koloreko lihoan, Simmonot-  
Godardena

Eisa

CBM 1998.33ab

## 4. Beira-arasa

1948

Gona tolesduneko soinekoa  
artile urdin morexkako  
krepean, Anfrierena, larruzko  
gerriko batekin

Balenciaga. Paris

CBM 09.2023ab

1946

Koktel-soinekoa eta xala, satin  
eta artilean, apaingarriz eta  
atxabitxiz brodatua, Bataillek  
egina

Balenciaga. Paris

CBM 2021.01ab

## 5. Beira-arasa

1959

Emakume-janzkia kotoi zurizko  
pike ehunean, estanzazio  
lineal abstraktu beltz batekin,  
Staronena

Balenciaga. Paris

CBM 2011.10ab

1967

Kotoi zurizko otomanezko  
berokia, tanto beltzezko  
estanzazioarekin, Lajoinierena

Balenciaga. Paris

CBM 2005.19

## 6. Beira-arasa

1975

Ikat zetazko tafetaz egindako  
koktel-soinekoa, lore arrosen  
estanzazioarekin, Staronena

Eisa

CBM 2003.04

1968

Koktel-soinekoa gazar  
zurian, fuksia koloreko  
lore-estanzazioarekin,  
Abrahamena

Eisa

CBM 26.2007

## 7. Beira-arasa

1962

Artile beixezko puntuko  
soinekoa, lepoan begizta  
batekin, Dumas Mauryrena  
Balenciaga. Paris  
CBM 06.2023

1967

Emakume-janzkia espikula  
motako puntuzko ehun  
marroian, Fournierrena,  
botoi-ilara bikoitzarekin  
Balenciaga. Paris  
CBM 49.2012ab

Circa 1939

Puntu marroizko soinekoa,  
bi papar-hegal txiki dituen  
lepo biribilarekin  
Eisa  
CBM 2019.216

1967

Koktel -soineko inguratzailea  
puntuzko ehun marroian,  
Burgena  
Eisa  
CBM 1998.04

## 8. Beira-arasa

1963

Satinezko beroki distiratsua,  
parpailaz estalia eta txenila-  
hariz brodatua, Marescotena  
Balenciaga. Paris  
CBM 2016.106

## 9. Beira-arasa

1965

Gaueko konjunttoa zetazko gazar zulo-puntudun beltz eta zurian, Abrahamena, zetazko begizta batekin

Balenciaga. Paris

CBM 2003.24ac

1967

Kapaz eta soinekoz osatutako konjunttoa lurex ehunezko laminette beltz eta arrosean

Balenciaga. Paris

CBM 08.2019ac

1963

Faya arrosaz egindako gaueko soinekoa, brodatua ezkata eta metalezko hariekin, Rébék egina

Eisa

CBM 2019.08ab

## 10. Beira-arasa

1957

lkat satinezko koktel-soinekoa harroturiko oinarriko gonarekin, Brossin de Méréren a candelieri

estanpatuarekin, Costarena

Balenciaga. Paris

CBM 2000.05ab

A. Instalazioa

Atelierreko zirriborroak

ehun laginekin


1951-1966

Lorenzo Riva Bilduma

Euskadiko Artxibo Historikoa



# 5. Aretoa





## Forma

«Balenciaga iraultzailea izan zen, iraultza egin gabe».  
Hubert de Givenchy

Cristóbal Balenciaga bere aztarna utzi zuen modaren historian bere silueta berriekin, ideal estetiko femeninoaren ulerkera aldarazi baitzuen haien bidez.

Hasieratik, Balenciagaren lanetan Lanvin eta Vionet sortzaileen eragina nabari ikusten zen garaitik, azken bildumetako forma arkitektonikoagoetara, bilakaera pausatu eta koherente batek ezaugarritu zuen haren ibilbidea, analisisan, lerro formal berriak proposatzean eta haien esperimentazio eta egokitze progresiboan oinarritua.

Bere lerroekin, erosotasuna, mugimenduen naturaltasuna eta gorputzaren eta jantziaren arteko airea bilatu zituen, dotoretasunera —balio gorenera— iristeko eta bere obra guztiak atxikita duen betierekotasunaren ezaugarria lortzeko formula magistral modura. Haren ibilbidean, bereziki nabarmentzeko giltzarriak dira erabateko koherentzia eta berrikuntza iraunkorra.

## Eboluzioa

Parisen finkatu zenetik, 40ko hamarkadan barrena, Balenciagak silueta historizistak berrikusi eta eguneratu zituen gauerako sorkuntzetan, eta egunerako proposamen berriak sortzen jardun zuen, aldi berean. Hala, 1945ean, hau zioen Frantziako prentsak hari buruz: «Duela bi urte, Balenciagak silueta femeninoa eraldatu zuen, bi kuxintxo gehituz bere trajeen gonei eta soinekoei, aldakak biltzen eta gerri benetan liraina marrazten zituztenak...»

Baina, 1947an, bide berri bati heldu zion Balenciagak, eta goitik behera eraldatu zuen garai hartan nagusi zen «hareazko erlojuaren» silueta; hain zuzen ere, forma arinago bat landu zuen, bizkar kurbatukoa, prentsak «tonneau» izendatua.

Bide horretan aurrera, 1951n aurkeztutako proposamenetan, emakumearen kurbak nabarmendu ordez haiek lausotzen hasi zen, gerria bereziki. Hala, «midi», «marinel» edo «erdidoitu» modura deskribatzen diren siluetetan, erreferentzia berriak ezarri zituen Balenciagak sorbalden lerroan eta soinekoen azpian, arreta gerritik desbideratzeko.

Haiek abiapuntu hartuta, lan gogoangarriak garatu zituen, jarraian, hala nola 1955eko «tunika» lerro minimalista eta 1957ko «zaku» soineko polemikoa. Gorputzaren eta jantziaren arteko banantze iraultzaile bat ikusten da haietan, eta gero eta garrantzi handiagoa hartzen du beste elementu batek: aireak.

Bere buruari leial, Balenciagak kontzeptu horiek lantzen, zorrotzen eta, are, hibridatzen jarraitu zuen harrezkeroko bere bilduma guztietan.

## Abstrakzioa

1957an, soinekoa gorputzaren erreferentziatik abstraitzeko bidean sakonduz, Balenciagak «baby-doll» modeloa aurkeztu zuen, forma trapezoidalekoa. Silueta abangoardista bat, zeinaren eragina aise ezagutu baitaiteke gaur egungo modan.

60ko hamarkadan, bide hari jarraitu zioten Balenciagaren proposamenek. Minimalismo kontzeptual eta tekniko — haren berezko ezaugarria — oihal zurrunagoez egindako bilgarrietan islatzen da orain, hala nola gazar, zagar eta ziberlinaz egindakoetan.

Horiekin, silueta aratz eta eskulturalagoak marraztu zituen. «Formaren Mirariak» deritzenak: hain zuzen ere, halaxe izendatu zituzten sortzailearen 1967ko otsaileko bildumaren modelo batzuk Vogue aldizkarian.

## 1. Beira-arasa

Circa 1925

Parpaila beltzez egindako  
gaueko soinekoa, aldakan  
lore-apaingarri beix  
eta beltza duena

CBM 2011.61

## 2. Beira-arasa

1936

Zeta urdinezko  
soinekoa, puntuan egina

CBM 08.2006

Circa 1938

Zetazko tafetan beixez  
egindako soinekoa

CBM 1998.66

## 3. Beira-arasa

1946

Satin morezko kokteleko  
soinekoa, parpailez eta  
atzabitziz apaindua

CBM 04.2002

1947

Artile gris jaspeztatuko janzkia,  
belus beltzez azpildua

CBM 03.2002

## 4.. Beira-arasa

1948

Zeta beltzezko krepean  
egindako soinekoa, gona-  
gaineko asimetriko batekin  
CBM 2018.1201

1955

Tunika-soinekoa  
dandarrarekin, artile  
beltzezko puntuan  
CBM 2019.214

1952

Midi konjuntua, espikula  
motako puntuzko ehun  
gris jaspeztatua  
CBM 2006.26ab

1966

Tunika-soinekoa, botoiak  
dituzten tapetekin,  
puntu jaspeztatua  
CBM 2012.46ab

1960

Hiru mailako tunika-konjuntua,  
artile hotz beltzez egina  
CBM 2016.88ac

1957

Tunika koktel-soinekoa, zaku-  
erako bizkarraldearekin,  
ikat tafetazkoa eta lore-  
estanzazioarekin  
CBM 2019.78bc

## 5. Beira-arasa

1955

Konjuntoa, zaku  
bizkarraldearekin, artile gris  
jaspeztatuzko tafetaz egina  
CBM 2006.92

1961

Konjunto erdidoitua, zaku  
bizkarraldearekin, zeta  
beltzezko shantungean  
CBM 2019.219ab

1951

Marinière jaka zeta beltzezko  
shantung ehunean  
CBM 2023.76

1960

Déshabillé erdidoitua, zetazko  
shantun brodatuaz egina  
CBM 2014.75

1957

Artile beltzezko krepez  
egindako zaku soinekoa  
CBM 2016.02a

1964

Konjunto inguratzailea, zaku-  
erako bizkarraldearekin,  
zetazko sarga estanpatuan  
CBM 31.2012ab

## 6. Beira-arasa

1958

Baby-doll soinekoa, zetazko  
ikat tafetaz egina, lore-  
estanpazioarekin  
CBM 06.1999

## 7. Beira-arasa

1967

Gaueko soinekoa, boli-  
kolorezko ziberlinaz egina  
CBM 2011.17

1961

Gaueko beroki zabala, zeta  
urdin eta beltzezko tafeta  
distiratsuz egina  
CBM 2014.65

## 8. Beira-arasa

1967

Gaueko soinekoa organdia  
zurian, ostruka-luma  
arrosaz apaindua  
CBM 32.2012

Aldamar Parkea 6  
20808 Getaria  
T +34 943 008 840  
info@crislobalbalenciagamuseoa.com  
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

# B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

